

ANAITASUNA

223. zenb.

1971.eko Hazilaren 30ekoa

Jardin Txikerra, 1. BILBAO-12
Tel. 43 18 37



POLITIKA ALA METAFISIKA?

Artikulu honetan gai sakon bat aipatu nahi nuke. Garrantzi handia duena eta, ene ustez, oso garbi ikusten ez dena. Hots,* politikaren adierazpena. Zer da politika egitea? Zer da politika?

Esanen dautazue, nahiko garbi ikusten duzuela. Hala ere, goazen aztertzerara.

Politikari buruz, gizonak eritzi asko izaten du. Ekar ditzagun batzuk.

Batzuek —apolitikoak deitzen zaie, eta herri bakoitzean gehien gehienak izaten dira— honela diote: “Ni politikan ez naiz sartzen... Huelga* hori ondo dago, baina berehala politika sartzen dute, eta...”

Tendentzia honetakoek beren bizitzaren problemekin zerikusirik ez duen arazo* bat bezala ikusten dute politika. Beste batzuen kezka bezala. Beren bizitzaren problemekin (heziketa,* bizimodua, ekonomia, eta abar) zerikusirik ez duena.

Jakina, nahiko erraza da, planteamendu hau zeharo faltsua dela ikustea. Ekonomia, heziketa, bizimodua eta hirigintza,* problema politikoak direla ikusteko, ez da asko beharrik. Nahiko garbi dago, politikarekin duten zerikusia.

Planteamendu hau sarri* askotan egiten da. Toki guztietan, sentsibilitate guttiko gizonak egiten baitute planteamendu hau. Baina beste postura bat ere gertatzen da sarritan. Postura honek, politika eta agitazioa gauza berdintzat hartzen ditu. Ez ditu bereizten gizarte bakoitzak dituen baldintza eta problema berarizkoak.* Postura hau hartzen dutenezkat politika eta agitazioa gauza bera direnez gero, agitazioa egitea politika denez gero, Bolivian eraman litekeen politika edo Algerian eraman zutena eta Euskal Herrian egin behar dena, berdinak dira.

Bai kasualitatea! Orain ohartzen* gara, bai batzuek (apolitikoek) eta bai besteek (gauchistek) planteamendu berdina egiten dutela. Politika, errealitatearekin zerikusirik ez duen gauza bat bilakatu* zaiku. Politika, metafisika bihurtu da.

•Euskal Herrian ere, planteamendu hau* egiten dira. Toki guztietan bezala, ba ditugu apolitikoak eta gauchistak ere bai.

Euskal Herrian egiten ari* den politika ere, metafisika bihurtu da. Problema errealak baztertu ditu, eta hodeietan (hirugarren eta laugarren mailako problemetan, alegia*) finkatu da.

Bermeo

Lebazaleen eboluzioa

Maiatzean bokartaren kosterarekin jazo* izan jakena, horrexen antzeko zerbait jazo izan jake orain Bermeoko ontzi txikiak —lebazaleei*— atunaren kosteragaz. Kostera hau laster amaituko zalakoan egon ziren irailean,* eta hazilaren* lehenengo egunetan ere ez da oraindino amaitu.

Ontzi handiak —zazpi edo zortzi izan ezik beste guztiak— Afrikatik dabilizan bitartean, ontzi txikiok hegaluzeari* ekin deutsoe sendo, gehienek behintzat. Urriko eguraldi ederrei esker, Kantauri itsasoa batetik bestera azterkatu dabe, frutu estimagarriak lortuaz.* Santandere,* Avilés eta La Coruña bertara ere sartu dira batzuk, euren arraina saltzera.

Guzti honek argi erakusten deusku, zelako aldakuntza hartu daben ontzi lebazaleek, euren antolamentua hobeagotuz, batez ere motor indartsuagoak ipinita. Honek askatasun gehiago emoten deutse, autonomia gehiago, itsasoan harantz honantz luzarago ibiltzeko, eta, beraz, errendimentu ekonomiko hobea eta seguruagoa lortzeko. Esan geinke, ontzidi hau eboluzio etapa probetxugarri bat pasatzen dagoela.

Atunzale handiak

Canariastik datozen berriek dinoskuenez, gauzak ez doaz guztiz txarto atunzale* handientzat. Haginzorrotz* gorri* ugariak aurkitu ditue, eta eguraldi onak dauke handik ere. Baina portura heldutakoan hasten dira, ihaz bezala, nekeak eta amorruak. Ez Arrecife-n eta ez Las Palmas-en, ez dago arraintza ugari bat hartzeko beste* industriarik. Prezioa guztiz behera joan da, eta, horrez gainera, kaltegarriagoa dana, ontziek sei eta zortzi egun itxaron* behar izaten dabe portuan, jela hartu ahal izateko.

Hortik aparte, laneko akzidente penagarri batean, 39 urteko patroik gazte bat hil jaku. Ezkondua zan, eta alarguna eta hiru ume txiki utzi ditu. Goian bego Juan Olondo, arraintzale jatorra!

Lagun elkarteak

Azken denboraldi honetan, lagun elkarte edo klub antzekoak sortzen hasi dira gure herrian. Horretarako, tokitxu bat antolatzen dabe, bertan ardo apur bat edateko, sukaldean jaki edo beste atondu, karta jokoan jardun, periodikoa irakurri —ANAITASUNA ere ikusi dot— eta horrela lagunaren artean denbora emateko. Ez dakit, soziedade honeek zerikusirik ote dauken Asoziazionismo Legeagaz; baina niri oso ona iruditzen jat ideia, tabernaria ez naizenez gero. Gipuzkoan, batez ere Donostian, ugariak direla uste dot honelako elkarteak, eta batzuk guztiz famatuak gainera.

Beharbada, gizon bakarren arteko elkarte zaletasun hau aintzinatik datorkigu euskaldunoi. Harri harotik* datorkigun atabismo bat izan leiteke ohitura hau. Eta honegaz ez neuke inor mindu gura, ez eta gutxiagorik ere. Alderantziz,* euskal nortasuna hobeto ezagutzeko euki leiken interes zientifikoagatik dinot, nahiz eta beste herri batzuetan ere (Alemanian, esate baterako) ezagunak izan holako elkarteak.

Hain zuzen, gizonak ihiztariak* ziren haro luze harretan (harri haroa esan gura dot), batasun edo elkarta-

sun berezi bat sortu zan, halabeharrez, klan edo tribuetako gizonetako artean, kazarako danen indarrak hobeto prestatzeko. Hauxe dino Desmond Morris zoolo- goak bere «The naked ape» («Tximino* biluzia») liburu irakurrian (eta diskutituan). Gaur egun ere, Hego Amerikan, Afrikan eta Australian ikusi geinke, zelan gizonen euren «etxe haundia» dauken, beste etxe arruntetik* aparte, eurentzat bakarrik, eta zelan andrazkorik ezin leiteken bertan sartu ezelan ere. Harritzekoa da, gure klub edo elkarte modernoek ere kondizio berau oso osorik betetzen dabela, egun seinatu bat edo beste izan ezik.

Dana dala, orain moda hau Bermeora heldu jaku. Izan dadila ondo etorria. Herritar bezala, ez dot galtzen esperantza, inoiz soziedade interesgarri horreek eginkizun altuagoetara ere joko dabela. Ba dakit, batzuk biblioteka on bat egiteko asmotan dabilzala. Aurrera, ba!

A. P. B.

Deba

Itziar ikustera

Jakinean geunden, oso zail izango zitzaikula Itziar espetxean ikustea; baina ahaleginak egin gabe ez genuen etsi* nahi, eta han izan ginen, Alcalá-n.

Espetxera sartu eta geure asmoak azaldu bezain laster, kopeta ilunez adierazi zeukuten, gure taldean ziren Itziarren senideek bakarrik ikus zezaketela.

Ez genuen horregatik etsi* geure nahian, eta une batean ikusteko modua egin genuen. Beti bezalako polit eta apaindua zegoen Itziar, ez ahuldua* eta menperatua, hainbat une larri iragan* ondoren. Oso bizkor eta aurrerakoi aurkitu genuen, bere herriko gorabeherak jakin nahiz, batez ere euskal kutsuzkoak.

Asko alegatzen gara Itziar horrela aurkituaz. Horrek garbi adierazten dauku zer neurritako nortasuna duen.

IDIAKEZ

Zornotza

Liburu bat

Eskuetan daukat, Madrilen inprimatutako «Huellas» izeneko liburua. Haren egilea Kepa Derteano da, gerra denborako abertzalea. Zornotzan jaio eta orain herbestean Venezuelan bizi dana.

Hamabi ipuinekin osatua dator. «El pelotari» deritxon ipuinean, bere gaztaroko giro eta pertsonaiak* hartzen ditu oinarritzat. Gainerakoetan ere, era guztietakoak izan arren, sarri* agertzen dira euskarazko hitzak eta euskal kutsuzko zerbait.

Aipatutako liburua, honelako kasuetan ohitura dan bezala, erdaraz datorkigu.

Kaleen izenak

Azken urteotan egindako kale berriei, izenak ipini deutseez. Nire etxe ondoko kalea, betidanik «Izer» izan dana. orain «Pintor Velázquez» bihurtu da. Ipinitako beste izen batzuk jatorragoak izan dira, zorionez.

«Zelaieta» parkea

Lemonara doan bidea zabaltzeko asmoz, zuhaitz* mozketa bat egin dabe parkean. Argiago geratu dira inguruak; baina orain, asfaltozko uharte* bat bezala, hiru bide artean kokatua* geldituko jaku parkea.

LEUNGANE

NORA DOA IRLANDA?

Ingles egunkarietan, hiru problema dira nabarmenak egun honeetan: Irlanda, Merkatu Komuna eta Sexoa.

Lehenengoa, dudarik gabe, gero eta gehiago haundituz, puztuz eta nahastuz doa inglesentzat.

Ez da egun bat ere pasatzen heriotzarik gabe. Irlandako mugan ingles soldaduen postu baten leher* arazteak, gizon biren heriotzarekin, oihartzun* haundia euki izan eban; baina ez dau txikiagoa euki poliziako buruzagi baten heriotzak, haren lantokia bonba baten durundioak beheara bota dauanean. Bestalde, egunero dira frankotiratzaileak kaleetan; egunero tiroak eta burrukak taberna, bar eta dantzalekuetan.

Espainiako pasaporteak daukan batentzat, harritzekoa da, gerra antzeko giro burrukatzaile honetan gertatzen dana. Torturatzen ote dabe ingles soldaduek? Galde honi era askotara erantzuten da ingles egunkarietan, erantzuna ematen dauan egunkariaren pentsaera politikoa zelakoa dan. Hartu eskuindarrak, **Daily Telegraph**, **Observer** eta abar, eta sarri* askotan entzungo dozu, irlandarrek gezurra baino ez darabilela, hiltzaile hutsak direla, eta I.R.A. dalakoaren gain legearen pisu guztia bota behar dala. Adibidez, egunkari horreetariko batean, barre eragiteko pasadizu hau agertzen zan. Inglesek zainduta-ko auzo batean, etxe barruan ezkutaturik,* I.R.A.ko gazte talde bat ikusten da, inglesen kontra akusazioak asmatu ezinik. Gazte batek hatzamarren* puntan zauri txiki bat erakusten dau, eta beste batek hauxe esaten deutso taldeari: «Hurrengoan hobeto gertatu behar ditugu geure ekintzak, gaurkoan John-en hatzamar txikiaren puntatxoa zauritzea baino ez dogu lortu* eta».

Ezkertiarrago diren egunkari batzuek, oster,* **The Guardian**-ek esate baterako, argitasun gehiago eskatzen dabe. Torturen kontra dagoz, eta ingles soldaduek Irlandatik alde egiteko eskatzen dabe. Baina, azken orduan, lehengo galdea erantzunik gabe geratzen da: ba dago torturarik ala ez?

Nik neuk, torturak ba direla uste dot, baina oso kontrolatuak, eta sekula ere ez Grezian eta beste zenbait* tokitan izaten diren hainakoak.*

Ingles soldaduen kontra mutiltxo gazteak ere tiroka eta bonbaka hasi direla esan dau inglesen buruzagiak; eta, honetara jarraitzen badabe, soldaduek ere era berean erantzungo dabela. Honelako berriak eurrez* agertzen dira eskuindar egunkarietan, eta askoz gutxiago ezkertiar eta erdialdekoetan.

Bitartean, Kennedyren deklarazioak beste bonba bat legez* jausi* izan dira: Ingalterra beste Vietnam berri bat bihurtzen ari dala, eta Irlanda biek estatu bakar bat egin behar leukeela. Deklarazio gogorak benetan, batez ere Ingalterrarako eskuindarrentzat.

Guzei hau ikusi ondoren, hauxe etorri jat burura: Zer inportantzia dauka, gerra batean torturatzen dan ala ez jakiteak, edozein gerraren kondizioa heriotza eta sufrimentua direlarik? Zer ardura* deutso, kartzelan dagoen I.R.A.ko baten zauriak, detenitu aurreko ala osteko

diren jakiteak? Zertarako dira amaibako diskusio honeek?

Gerra honetan, egia esan, tiroak ez dira asko, ez eta heriotzak ere, baina berbak ugariak dira. Batzuen ustez, propagandak hartu izan dau gerra honetan inoiz ez bezalako garrantzia, eta, beharbada, kaleetako tiro eta bonbak propaganda horri laguntzeko dira, eta ez gerra irabazteko.

Burrukabide hau egokia dan ala ez esatea oso gaitza da; baina, gerra ireki baten posibilitatea eskasa denez gero, I.R.A.koek behinik behin Ingalterra hestualdi batean jartzea lortzen dabe gutxienez.

ANTON

«Literatur Saiaera» saria Ibon Sarasolarentzat?

Bizkaiko Aurrezki* Kutxaren babespean Euskaltzaindiak eraturako «Literatur Saiaera» saria, Ibon Sarasolak irabaziko ote dauan zabal entzuten da Bilbo aldean. Sari honetako epaimahaikoak, Jean Haritschelhar, Gabriel Aresti eta Alfonso Irigoien euskaltzainak dira. Hiru lan presentatu dira lehiaketa* honetara. Hareetariko bat, Ibon Sarasolaren «Euskal Literaturaren Historia» izatea suertatu da, eta hoberentzat jo izan da. Hala ere, epaimahaiko batek ei* dino, lanek ineditoak izan behar dabela, lehiaketa horren erataileek baldintza* hori eskatu ez arren. «Hala izaten da beti», esan ei dau; eta Ibonen lana, nahiz eta epaile harentzat ere hoberena izan, lehiaketa hau bukatu baino lehen argitaratua izan da. Saria, 100.000 pezetakoa da.

Nafarroako ekonomiari buruz, liburu berria

Nafarroako «Consejo Sindical Económico» dalakoak argitara eman berri dau «Estructura y perspectivas de desarrollo económico en la provincia de Navarra» liburua. Jarraiko aurkibide hau dakar: *Introducción general, Análisis del medio natural, Estructura y posibilidades de desarrollo económico, Desarrollo económico de la provincia a corto plazo, Perspectivas de desarrollo económico de la provincia a medio plazo, Selección de problemas, Objetivos y recomendaciones.*

ANAITASUNA Bizkaia

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaieta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkola eta banakolaren buru: Josu Torre.

Bulegoak: Jardín Txikerra 1, Bilbao-12.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

Irarle: RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

Migrazioa Bizkaian

Bizkaiko «Caritas» erakundeak* aditzera eman dauan legez,* 2.249 bizkaitarrek alde egin izan dabe herbestera, joan dan 1970. urtean. Era berean, 11.610 herbesteko heldu izan dira Bizkaira.

Mikel Laboa eta Etxamendi-Larralde Parisen

Mikel Laboa eta Etxamendi-Larralde euskal kantariak Parisen jardun izan dabe, hazilaren* 7an. Hareekin batera, Gilles Servant bretainiarra, C. Marti okzitaniarra eta Luis Llach katalana izan ziren.

Dei bat

Euskal liburu, disko eta agerkarien argitarazleei eskatzen deutsegu, bidaldu deiskuezala, arren, publikazio bakoitzeko ale bat, ANAITASUNA honetan haren berri eman daigun.

Pío de Montoya jaunaren liburu berria

Pío de Montoya jaunak, «La intervención del clero vasco en las contiendas civiles (1820-1823)» liburu argitaratu berri dau. Liburu horretan jarraiko gai honeek agertzen dira: **Jalones enunciativos y enunciación de te-**

(Lehenengo orrialdetik)

Gure egoera ekonomikoa

Hona hemen, Euskal Herriko egoera ekonomikoan nabari* diren errealitate batzuk: deskapitalizazioa, industria-aren ahulezia,* gure produktibitatearen egoera, plangintza baten falta, kontsumo bortxatua, eta abar.

Sasi-marxista batzuek gure problema ekonomiko honetaz konturatu nahi ez badute ere, jendea, zorionez, ba dirudi gero eta gehiago ohartzen* ari dela problema honen garrantziaz eta gero eta nabarmenago diren ondorioetat.

Problema honi buruz, benetako problema honi buruz politika egitea zera izango litzateke: geure produkzio indarrek kanpora alde egiten nola ez permiti, eta haien kontrola nola eduki.

Hala ere, ikusten dugunez, hemen Euskal Herrian «politika» egiten ari* direnek ahaztu egiten dute hau dena. Esate baterako, orain dela gutti, «Telefónica»k Donostiako telefono zerbitzua erosi du. (Hemengo indar produktibo baten jabegoa galdu dugu). Honen truke, mila milioi pezeta ordaindu zen. Normalena zen, diru hori industria berrietan, infrastrukturan edo holakoetan inbertitzea: baina ez zen hori gertatu, eta, horren ordez, hiru monopolio-tan inbertitu zen: «Iberduero», «Telefónica» eta «Hidroeléctrica Española»n. Ederki! Jokoa ikaragarria zen: kontrola eta dirua, kanpora.

Beste kasu bat. Orain dela gutti, «Crédito Navarro» bankua «Banco Central»ek hartu du. Jakina, «Crédito Navarro»k inbertituko lukeen dirua, Euskal Herriko dirua, Nafarroara ordez, kanpora joanen da.

Beste kasu bat. «Astilleros Españoles, S.A.» formatu denez geroztik, oso nabari* da, Euskal Herriko barkugin-

mas. La guerra civil en Alava. Rebelión en Labastida. Rebelión en Salvatierra. Guerra civil en Guipúzcoa. Guerra civil en Navarra. Guerra civil en Vizcaya. Clero y picaresca. La represión política. Los realistas contra el clero de la «ilustración». Represión política contra los eclesiásticos. «El trapense». Conclusiones.

Liburu honetan, «gudua maite duten jendeak saka-bana itzazu», 67. salmoaren irakatsia eman nahi jaku. Eskatzekotan: «Txertoa», Plaza de las Armerías, 4. San Sebastián.

Banco de Vizcaya-ren ahaleginak

Oraindik oraintsu aditzera eman izan dau Banco de Vizcaya-k, ahaleginak egingo dituala, bere bezeroak* beste nazio batzuetako komertzialariekin harremanetan jartzeko. Izan ere —dino Banco de Vizcaya-k— mundu zabaleko komertzialaritzazabalduz eta gizenduz doa; bestalde, gure arteko komertzialari batzuek kanpoko komertzialariekin harremanetan hasteko premia haundia sentitzen dabe. Hau dala eta, Banco de Vizcaya-k «Servicio de contactos comerciales con el exterior» izeneko bulego* bat muntatu dau, bere lehengo «Departamento central del extranjero» dalakoan. Ez dakigu, joko honetan saldu ala erosi gehiago egingo dan.

tza, industria sekundario bihurtzen ari dela. Hau ere komentariorik gabe.

Gure jendea zer ari da egiten? Edo ez ote da hau benetako problema bat? Zer ari gara egiten? Zer politika ari gara egiten? Politika ala metafisika?

Ikastolen arazoa

Goazen orain, beste adibide bat ekartzera. Gure problema ikaragarrienetako bat: ikastolen arazoa.*

Batzuentzat, ikastolen problemak honako hauk bakarrik dira: H jar ala ez, eta gurutze santua egin ala ez. Horretan omen datza* gure ikastolen problema.

Ez, jaunak, ez. Horretan bakarrik ez datza ikastolen problema, ez. Beste problema batzuk ere ba dira, eta hoik* baino inportanteagoak: Heziketa,* plangintza baten falta, andereñoak, liburuak, inbertsio, berrientzako dirua, eta abar. Problema askoz ere sakonagoak.

Baina beti egiten dugu gauza berdina: benetako problemak baztertu, errealitatetik urrunduz, eta hodeietan finkatu geure politika.

Gure politika, metafisika hutsa da. Hauen antzeko xenpluak, milaka jar genitzake.

Noiz arte? Politika ala metafisika?

AURTIZ

dautazue, deustazue, didazue
diote, dinoe
ditzagun, daiguzan

genitzake, geinkez
zaie, jake
zaiku, jaku, zaigu

«Araba» kanta taldearen disko berria

Gasteizko «Araba» kantari taldeak disko handi bat jarri dau salgai, Donostiako «Hegosa» disko etxearen bidez. Sabin Salaberri jaunaren zuzendaritzapean, jarraiko kanta honek grabatu izan dira: **Agur, zaharra. Zugana nahiez. Aita San Juanen bezpera. Gure da. Gora, Araba! Mendizaleak. Kitolis. Amaren poema. Bonba bat. Amets. Kantatuaz. Ator, ator.**

«Andra Mari» dantzari taldearen pauso berriak

Urte honetako abuztuan, Galdakanoko «Andra Mari» dantzari taldekoek dei bat zabaldu dabe herritarren artean eta Euskal Herrian zehar, Sabino Larrea idazkariak izenpeturik.

Dei horretan, aurrerantzean eman nahi dituen pausoak aipatzen dira: Musika eskola bat sortu, Elizaren babespean tiple* talde bat eratuaz; berorrekina batera, musika irakasleen taldea bildu,* premiazko diren liburu eta tresnak eskuratu, eta guzti horretarako behar diren gela edo toki batzuk erosi. Toki edo gela horreen erostea, apaintzea eta mantentzea, bi milioi pezeta kostatuko litzakioez. Dirutza hau bildu ahal izateko, euren jardunaldietan eta nondik edo handik etorri leitekena aparte, herritarren eskuzabaltasunetik itxaroten* dabe. Horretarako, bazkideak egiten ari dira Euskal Herrian zehar, eta bereziki* Galdakanon bertan. Bazkide bakoitzak 100 pezeta emango ditu urtero. Eta beste 250 pezeta, gela berriok erosi ahal izateko laguntza eman nahi bada. Guzti horrekin, «Andra Mari» taldekoek euren erakundeari* infrastruktura sendo bat eman gura deustoe, euren lan kulturala emankorragoa izan dadin.

I. Urtizbera eta K. Zabala dantzariak esana

Iñaki Urtizbera eta Koldo Zabala Biarritzeko «Oldarra» dantza taldekoak dira. Oraindik oraintsu, Iruinean jardun izan dabe, eta, zenbait kazetalariren* itaunei* erantzunez, zera esan dabe:

«Gaur egungo folklore bizia, ba leiteke, 50 urte barru, dantza klasikoa izatea... Estranjeri aldera geure folklorea daroagun dantza taldeok, geure aberriaren enbajadore bezala agertzen gara... Dantza modu batzuk dantzatu ahal izateko, teknika on baten jabe izan behar da. Horregatik, guk dantza eskola bat dogu... Beste talde batzuek. Donostiako «Argiak» kasurako, dantzen jatorriaz arduratzen dira gehiago, eta ez hainbeste teknikaz... Folklore berririk ez da batere sortzen, gaur egun, Euskal Herrian. Dantza sozial bakarra Zuberoko maskaradak dira, eurek, Zuberotarrek, publikoaren premia gabe dantzatzen dituenak».

Beharbada, haxe da euskal dantzen arriskurik haundiena: ez dala dantza berririk sortzen, ez direla industri garaiaren agerpide.

Hiru apaiz Cartagenako presondegira

Orain arte Zamorako presondegian izan diren Jon Etxabe Altzolaterra, Alberto Gabikagoxeaskoa Lekeitia eta Jesus Naberan Gautegiztarra, Cartagenako presondegira eramanak izan dira.

Apaiz berri eta kargu berriak Bizkaiko diosesian

Hona hemen, Bilboko Zirarda gotzain jaunagandik apaizgoa jaso beri dabenak: Tomás García, Bilboko, José María Aizarna, Zeanurikoa, José Antonio Fernández, San Salvador del Valle-koa, Jesús Martín, Basaurikoa,

Trinitario Alvarez, Portugaletekoa, Miguel González, Soportakoa, Javier Makua, Bilboko, eta Carlos Trevilla, Villaverde de Trucíos-koa.

Era berean, kargu beri honeek eman izan dira: Otxarkoagako parrokiak, Diego Berguices, José Luis Atxotegi, Jesús María Martínez, Antonio Escartín eta Tomás García apaizen kargupean gelditzen dira. Trinitario Alvarez, Somorrostroko laguntzaile. Carlos Gómez, Bilboko «San Adrián» parrokiako laguntzaile. Adrián Merino, Barakaldoko «Hijas de la Cruz» ikastetxeko kapellau.

Fernando Alkorta, Bilboko «Nuestra Señora del Pilar» parrokiako laguntzaile eta Derioko seminarioko irakasle. Veriano Sobral, Karrantzako laguntzaile. José Antonio Fernández, San Salvador del Valle-ko laguntzaile. Jesús Martín, Las Carreras-ko laguntzaile. José Luis Jauregi, Bediako parroko. Javier Makua, Gordexolako laguntzaile. Carlos Trevilla, Bilboko «San Rafael» parrokiako laguntzaile.

José Cruz Goitisoló, Basauriko «San Ignacio de Loyola» elizako laguntzaile. José García, Bilboko «Cristo Rey» elizako laguntzaile. Félix Moratalla, Bilboko «San Francisco de Asís» parrokiako laguntzaile. Juan Iraeta, Gamiz eta Arrietako kargudun. Valentín Zabalo, Gamiz eta Arrietako laguntzaile. Luis Kortazar, Bilboko «San Miguel Arcángel» elizako laguntzaile.

Luciano Urrunzuno, Berriatuko parroko. José Miguel González, Barakaldoko «Santa Teresa» parrokiako laguntzaile. Enrique Freijo, Derioko seminarioko «Gabinete de Psicología y Psicotecnia» dalakoaren zuzendari. José Luis Erezkano, Lemonako laguntzaile. Juan José Núñez, Gaztelu Elexabeitiko parroko. José María Aizarna, Zeberriko laguntzaile. Juan Zumalde, Santurtzeko Mamarigako laguntzaile. Pablo López, Gallartako laguntzaile.

Leireko monasterioa bere buruaren jabe

Leireko monasterioak, legezko eban askatasuna lortu* dau. Orain arte, Silos-ko monasterioaren menpean egon da. Oraindik aurrera, bere buruaren jabe izango da. Horrela, Leireko fraileen lepora askatasun gehiago eta erresposabilidade gehiago jausten* da, Euskal Herriari begira batez ere. «Monasterio bakoitzak —esan dau Pablo Hurtado priore jaunak— jokaera berezi bat izan behar dau».

Jakina dan bezala, monasterio honen bidez batez ere sartu zan kristau erlijioa Euskal Herrian; eta abadia honetako fraile beneditanoek zerikusi haundia izan eben Nafarroako erreinuaren joan-etorrietan, erregetza Jainkoaren dohai eta gurari* bat zala irakatsiz.

Jorge Cortes Itzal jaunaren esanak

Jorge Cortes Itzal Iruinean bizi da. Gorputzez zimel, ile zuri, begi urdin, 40 urte inguru izango ditu. Iruine aldean diren tendentzia aurrerazaleko ikastolak aurrera eroaten, ahalegin biziak egiten ditu. Era guztietako jendeek, inon diren madarikazioak bota izan ditue haren kontra; baina, hala ere, Jorge Cortes Itzal jaunak, tematsu, aurrera egin dau. Orain, Euskaltzaindiak Iruinean dauan ordezkartiaz arduratzen da, eta era berean euskal alfabetatzea aurrera eroaten biziki saiatzen da. Kazetalariren* itaunei* erantzunez, zera esan dau berriki*:

«Berrehun bat pertsona nagusi ari* dira, gaur egun, euskara ikasten Iruinean, taldeka banaturik. Gero eta gehiago dira, laster hasiko direnak. Diputazioak ere zenbait laguntzen dau, diruz. Dana dala, Nafarroako udal-txeak* oso gutxi arduratzen* dira arazo* honetaz».

Gabriel Arestiren Harriak

(Bigarren partea)

Oso lotua dago Arestiren poesia beste zenbait* espresio bideri. Adibidez, ez deritzat harrigarri, Arestiren olerkiekin* hainbeste kantu osatu bada. Arestiren poesiak ritmo bereizirik ba du. Ritmoa ez datza* bakarrik hitz neurtuetan. Halako barne doinu bat ba du Arestiren olerkiak. Dantzarekin ere ba du zerikusirik. Ondorio honetara irixten* gara, haren poesiaren funtzio estetiko eta plastikoei so* eginez gero. Baina Arestiren poesiak, literatur alor* hesituan ere ba du funtzio bereizirik. Haren olerkigintzaren funtzio literario nagusiak, hau* lirateke laburzki:

Funtzio espresiboa

Poesiaren funtsa ez datza hitz neurtuetan. Ez eta hitz neurtu oro* ez da poesia. Poesia espresio molde berezi batean datza. Aintzina, poesia kantuari lotua zegoen. Poemagintza honen agerpiderik argiena bertsolarien poesi moldea dugu. Agian,* gure lehen poetek kantatuz konpontzen zituzten beren poemak. Gure literaturan, Etxepare da poesia eta kantua bereizi dituen; eta bera da, beraz,* lehen poeta modernoa. Beste literaturetan, aintzina bereiztu ziren poesia eta kantua. Poesiaren espresio bideak kantua eta dantza ziren lehen. Gero, poetek ideia unibertsalak kantatzen zituzten: Maitasuna, Jainkoa, Heriotza... Poeten espresibitatea, gai nagusi hauen kantatzean agortzen zen. Erromantikoek, ordea,* gai nagusi edo «topiko» hoik* bereiztu eta konkretuki landu zituzten. Olerkariak ez zuen gehiago Maitasuna edo beste edozein ideia unibertsal aditzera ematen; aitzitik,* bere maitasuna edo berak zituen esperientzia konkretuak agertzen zituen. Lamartine, Musset et bestek hildo* horretatik jo zuten, poesiari espresio bide berriak irekiz. Egun,* poetak zientziaz beste den ezagupide bat monstratzen dauku, baina beronen osagarri dena. Poetaren ezagupidea, irrazionala, subjektiboa eta irudimenez kutsatua da. Eta hemen nator, Arestiren poesiari eustera.

Poeta, ilunaren zelatan* dago. Ezezagunaren bortxatzea du bere ardura;* baina, ezezagun hori aditzera emateko, hizkuntza berri bat prestatu beharrean da.

Arestiren hizkuntzari, «koine» gisa bat deritza Juan San Martinek. Ez dakit nik, daitekeen zuzenena ote den delako «koine» hitz aipatua; baina guztiok nabaritzen* dugu, Arestiren hizkera berezia eta aparta dela. Aresti-

ren hizkera hau, funtzio konkretu baten arauera* sortua da. Funtzio berri hau, Arestiren espresibitate bide eta -gisari berari dagokio. Arestik bere gisara esaten du mundua, euskal mundua. Gisa hori poetikoa da; eta haren hizkera zubi bat da, ezagunetik ezezagunera doana. Beraz,* Arestiren elerti* saiaera, hizkuntz saiaera bat da. Haren hitzen esangura,* bigarren mailakoa da; lehenik eta bere hitz-azal arruntaz,* funtzio fonetiko bat osatzen du. Eta funtzio honek semantikaren alorrera* garrazki (semiologiaren alorrera, hobeto), metaforaren funtziora hain zuzen.

Arestiren hizkera, ohi den hizkuntzaren bortxaketa da; espresio molde berri baten bilaketak eraginik, delako «koine» horretara heldu da. Esangura asko atz-aurre jazartzen ditu, mundu berri bat, objektibitate berri bat aditzera eman nahirik. Stalinen tesiari musin egiten diot hemen, eta esanen dut, Arestik frogatu duen hizkuntza berria, euskal errealitate berri baten kontzientzia eta agerpide dela. Beraz, batasunaren burruka ez da bakarrik burruka linguistikoa; Euskal Herriaz osatu diren bi proiektu desberdinen arteko burruka da. HARRI ETA HERRI lehen urrats* bat izan zen, jaio bide zen kontzientzia berri baten espresio bide lehena.

Arestik, HARRIZKO HERRI HAU liburuan euskal hitza lehertu ondorean, erdaraz mintzatzen denean, ez pentsa, ez, arrozkeriaz jokatzeko duenik, zeren* erdal hitz hoiek ere euskal kontextu batean aurkitzen baitute beren esangura. Arestik mundu berri bat aditzera ematen dauku; zurezko* Euskal Herri honek duen sitsa* salatzen du. Euskaldunon dilema, kontradizio eta bikoiztasunaren lekuko* dugu Aresti.

**Hiregatik
munduko bekaturik haundiena
kometitu behar
dinat:
gramatikari
ganibetkada bat
eman behar
dut. (140)**

Hitz hauk* esatean, Arestik ez du soilik* bihotza edo afektuaren bentura bat jasaten.* Hizkuntzaren gailurra ikutzen du. Ikutu eta urratu.



PENTZUAK

Sarb-en ardurapean eratuak

VALLE DE ATXONDO (Bizkaia) - Tel. 11

**Zure etxeko behi, txahal, egazti,
ardi, koneju, nahiz txerri,
onuragarri izan ditzazun,
emaiezue Ongarri.**

Ez dut esanen, Arestiren funtzio espresibo honek haren olerkigintza oro* argitzen duenik. Ba du komunikazio funtzio bat ere; baina, denik ere, bigarren mailakoa deritzat honi. Arestiren poesia ez da subjektibitate bakartian finkatzen.

**Inork ez du aditzen
ene mintzaera. (102)**

Hori esaten badu ere, Arestiren olerkiak —Herriaren baitan batik* bat— izan duen harrera onaren lekuko* gara denok.

Funtzio metaforikoa

**Parabolen denbora sinbolista
iraganda diagok. (136)**

Ezaguera izan nahi lukeen ikuspegi baten agerpide jatorra da metafora. Arestiren poemagintza metaforaz asko baliatzen da. Ordea*, parabolen denbora iragana* da.

Olerkiak ezagupide izan nahi luke, ezezagunaren ikusmira. Olerkia, ohi den ezagueratik misteriora doan ezagupidea da: zubi bat, mundu desberdinen artean zabalduko bide zidorra. Ezezagunarekin dugun harreman oro* hitz berri batez adierazten dugu, eta hitz honi metafora deritzagu. Arestik hain sarri aipaturiko HARRIA, metafora bat dugu. Fonetikoki oso hurbil* dira bi hitz hauk:* HARRI, HERRI; baina haien esangurak* oso dira desberdinak. Esannahi desberdin hoiaren arteko kontrastean finkatzen da, HARRIA hitz zaharrak izan zezakeen esangura berria. Kontrakoak (semiologikoki) eta auzokoak (fonetikoki) izatean, bi hitz hauen artean Arestik lotura metaforiko bat osatzen du; eta horrela bai Herria eta bai Herria beste argi berri batez agertzen zaizkigu.

Hizkera poetikoa ez da zinezkoa edo gezurrezkoa.

Egia edo gezurra poesiatik at* jartzen dira. Hitz poetikoak, baliorik ba du edo ez du: horixe da poesia ororen dilema. Eta balioa bere funtziotik datorkio. Eta funtzio oro behar baten erantzuna da.

Arestiren hizkera berriak, hizkera metaforikoak, funtzio politiko bat osatzen du. Agian* euskaldunok eta Euskal Herria, azken finean, hitz berri baten beharrean

aurkitzen ginen; eta hitz hori Arestik esan zuen 1964. urtean, bere HARRI ETA HERRI liburuan. Baina ez zen Aresti bakarrik izan hitz honen frogatzailea. Gogoan hartu behar dugu, Bilbaok, 1960.eko urte mugan gutti gorabehera, bizi zuen egoera eta han sortu zen mugimendua. Mugimendu hark azterketa berri bat burutu zuen euskal errealitateaz. Baina agian,* mugimendu honek ez zuen hitz egokirik, azterketa hori esateko; eta Aresti izan zen hitz berria sortu zuena. Hitz hura metaforikoki esana izan zen. HARRI ETA HERRI beregan uztartu zuen kezka baten etena, errealitate baten gogorra. HARRIA hitzarekin esan zuen Arestik errealitate haren bortitza.*

Geroztik, Arestik hitz asko egin du. Baina, beti legez,* Aresti ez da sorketa soil baten lekuko; aitzitik,* inguru baten lekuko* eta hitzun aparta da. Honekin hau bakarra esan nahi dut: Aresti, lur, Herri, burruka, saiaera... penatu baten adierazle apartekoa dela. Arestik, bakarrik eta, nahi bada, basamortuan bezala sortuko du; baina —ez gaitezen ahantz— haren sorketak gai bat du, eta gai horrek, errealitate horrek bere ingurua du, gu gaitu, Euskal Herria du.

Noski,* Arestiren poesia ez da gizarte baten adierazle izatean agortzen. Arestik ba du sen* poetiko pertsonala; bere baitaren lekuko mirezgarria eta sakona da Aresti. Poesi gisa honen metarik aipagarriena, Rikardo Arregiri eskaintzen dion poema da. Eta halaber,* bere «Neskato Ilun» alabatxoari kantatzen dion oroitzapen unikigarria;* Lizardiren «Xabiartxoren Eriotza» eta Unamunok «Haur Eriaz» egindako poemak gaituak ditu bere poema zoragarri honetan.

Arestik dioenez, HARRI ETA HERRI «ene espiritu pobreziaren, ene koaiten* eta kobardekerien agerpide da. Liburu soil bat, liburu xipi bat, liburu karikatura bat». Baina Arestiren harriak, herri baten harma ere ba dira. Arestiren harriek Herri baten hatsa atzematen dute. Herri pobre baten pauso nagia bortizki* presatzen dute. Herriak bere egin ditu, Arestik bihurtu dizkiolako.

LUIS HARANBURU-ALTUNA

dauku, **deusku**, digu
diagok, **jagok**, dago.
dinat, **jonat**, dut
dio, **deutso**

diot, **deutsat**
dizkio, **deutsoz**
garamazki, garamatza, **garoaz**
zaizkigu, **jakuz**

Transportes "ANAITASUNA"

- Trasporte kooperatiba euskalduna, gaurko egunak eskatzen duen modukoa.
- Karga osoak nahiz paketeak, peninsula guztirako.
- Euskal Herriko komertzio eta industriaren zerbitzuan.

TRANSPORTE ARAZOAN LAN EGITEN DUTEN KAMIOIDUNEI:

- Egin ditzagun enpresa haundiagoak, geure interesak zaintzeko eta irabaziak gehitzeko.
- Bakarrik ezin duguna, elkartuta egingo dugu.
- Gure gaitz guztien sustraia, nor bere aldetik ibiltzea da.
- Elkartu ditzagun geure indarrak.
- Sartu zaitez «ANAITASUNA» trasporte elkargoan.

Hona hemen zuzenbideak

PAMPLONA
Pico de Ori, 2
Tel. 23 92 40

SAN SEBASTIAN
General Mola, 45
Tel. 42 81 77

BILBAO
Gordóniz, 93
Tel. 32 78 85

VITORIA
Concejo, 5
Tel. 21 14 35

BEASAIN
Avda. Navarra, 47
Tel. 89 18 37

ALSASUA
Mayor, 8
Tel. 56 01 76

MADRID
Paseo de la Chopera, 29
Tel. 228 45 46

TOLOSA
Carr. Leaburu, s/n
Tel. 66 10 24

Fernando Mendizabali erantzunaz

Hazilaren* 15ean ANAITASUNA izenaz argitaratu zen dinamitontzi hartan, bi artikulu egin ziren ene pertsonaz eta lanez. Haietan, gainera, galdera batzuk egiten ziren, neronek oraingo honetan eta hurrengoan erantzuten saiatuko* naizenak.

Gaurkoz, Fernando Mendizabal jaunaren artikulua hautatu* dut, «Batasunaren Kutxa»ren moldatzaileoi buruz egina. Hasieran ba diosku, hurrengo hiztegia zuzen dezagun egiten daukula kritika hori.

Eskertzekoa da, duda gabe, borondate on hori; eta bide batez bihoaz hemendik geure eskerrik beroenak, «Batasunaren Kutxa»z, pertsonalki eta arakatze* lan sakon baten ondoren, beren kritika positibo eta zuzentzailea bidali daukuten guztiei. Ez dira, ez, guti izan. Denen eritziak pentsatuak eta kontuan hartuak izan dira; eta hoiiei esker, gainera, uste dugu, hurrengo edizioa biziki hobatua izanen dela.

Noakion orain Mendizabalen kritikari.

1. Egia da, zenbait* hitz falta daitezkeela; ba dakigu, eta hurrengo edizioan gehituak eta ugaltuak izanen dira. Denbora gutiz egin zen hiztegi hori, Herriak zuen premia bat betetzeko (zeharo agortua da honez gero!); eta, noski,* gauza denak egin ziren presaka. Ardua* ez zen falta izan, baina giza lan guztietan...

2. Liburua **batasunaren** kutxa zen, eta ez bitasunaren edo hirutasunarena. Kriterio bakar batez egin zen, batasunerako erizpidez.* **Aitu**, **ahitu** eta **akitu** artean BAT hautatu* beharra zegoen; eta guk, literatur usadioari so* eginaz, **ahitu** hobetsi* genuen. Eta berdin beste hitzetan ere. Ba liteke, zenbait kasutan, hautaketa hori oso egokia ez izatea; baina berauk, batere dudarik gabe, gutienak dira.

3. «Batasunaren Kutxa» Euskal Idazleen Elkartek egin genuen, eta bertan **geure** eritzia, hau da, H-dun eritzi bat azaldu dugu. Forma biak ontzat hartuak zirenez gero, guk, eskubide osoaz, batzuk hobetsi ditugu. Zergatik bota behar daukuzu hori aurpegira? Ez ote duzu oraino ulertu, forma biak edo hirurak onartzetik etorri dela, hain zuzen ere, orain arteko batasun falta hau? Eta guk batasuna (eta batasun konkretu bat) genuen maite. Lana geure lepora hartu genuenez gero, geure eritziaren arauera* egin dugu. Zerorrek egin bazenu, nahiago zenukeenara egin zenezakeen, noski,* zeure gramatika hori egin zenuen bezalaxerik.

4. **TX/X** bikoiztasunari buruz ere BAT hautatu genuen, eta berau Mitxelenaren ustea entzun ondoren. Ez dago munduan hiztegi normal bat, hitzak horrela dakartzanik: **(t)xori**, **(t)xukun**, **(t)xirla**, **(t)ximist**; ez eta TX- eta X-aren zerrendan birritan hitzak berak dakartzanik ere. Hemen ere BAT hautatu beharra zegoen.

Eta besterik ez. Zenbait puntutan ados egon ez arren, eskertzekoak dira beti honelako kritikok, agian,* artikuluz gabe,* eskutitz partikularrez egokiagoak badira ere.

Ohar bezala, jakizu, hurrengo hiztegian literaturan asko usatu diren era dialektalak ere sartuko ditugula; esangura,* ordea,* batuztat hartzen dugun hitzean ez bestetan jarriaz, besteetan hara joatea seinatuaz.

XABIER KINTANA

bihoaz, **beioaz**, joan bitez
dakartza, **dakaz**, dakarzki
dauku, **deusku**, digu
daukute, **deuskue**, digute
daukuzu, **deuskuzu**, diguzu
diosku, **dinosku**, esaten dauku
zenezakeen, **zeinken**

ERITZI BAT

«Iruineko Gertakarien Haria» artikulua irakurri dudanez geroztik, ezinbesteko kezka sortu zait barnean. Hau dela eta, ez dakit zer arrazoi erabili duten artikulua hori egin dutenek; baina garbi dago, benetako ezer ez dutela esaten.

Seguru aski,* artikulua irakurri duten askok ez dute ezer aterako, Irakasle Elkartean sarturik ez badaude behintzat. Ene ustez, gertaera baten haria azaldu behar deanean, gertatera hori zergatik jazo* den ere esan behar da. Baina ba dirudi, gure irakasle jaunek, haurtxoekin erabiltzen duten pedagogia, herriarekin erabiltzean, karkaba zulo batetan ahazturik utzi dutela.

Gertaera batzuen haria kontatzeko aukera izaten deanean, gertaera hoiien historia kontatu behar dutenek kontuan eduki behar dute, ez dela aski gertaeren haria soil* soilik azaltzea; zeren,* gertaera hoik* historia direnez, eta historiaren errealitatea hainbat klaseren interes bereziek egiten dutenez, beharrezkoa baita, gertaera hoietan izan diren interes desberdinak argitaratzea.

Artikulu honetan, gertaerak ematen direnez, batzuen joko maltzurra arrunt* argi azaltzen zaiku, eta kito. Baina, artikulu hori norentzat idatzia da? Herriarentzat bada, ene ustez, gauzak ez dira zuzen azaldu. Gaur egun, herriak informazio fase hutsa erabat* gainditu du; beraz, gertaera hoiien interes bultzatzailea nondik datorren herriari erakusteko garaian gaude. Herria ez da berehala kontzientziazten; herria ikusi eta ikasiaz batera esnatzen* ari izango da. Baina hemen dago koxka: ikasteko materialik eta tresnarik ez badu, gaur egungo informazioak bihar nahaste-borraste izanen dira.

Esanak esanda ere, nik ere ez dut erabili proposatu judan bidea. Baina nola egin nezake bestetara, Elizako, Ikastola Elkartean eta Irakasle Elkartean interes bereziak ezagutzen ez baditut? Hain konprometitua ote da, «zergatik» hitzari, behar zaion erantzuna ematea? Oraindik ez zaitzue iritxi,* posturak hartzeko garaia? Artikulu hau azaltzen duzuen eran, ez zait erraz konklusiorik ateratzea; proletalgoaren interesak nork defenditzen dituen ezin jakin daiteke eta.

T. OKERRA

Euskal editorial gazteez

Jakin-ek markatu zuen hasiera. Liburu polit batzuk atera zituen, errebista gisa* eta aparteko liburuz; baina, aldizkari bezala, goitik behera erori* zen, horretarako behar zituen baimen faltaz. Liburu sail bezala, ordea, lan bikain bat egiten ari da, titulu guti atera arren.

Geroago, ia batera, **Lur** eta **Irakur Sail** sortu ziren, biak liburu interesgarriekin. Zoritzarrez, **Irakur Sail**-ek ezin eutsi* ukan* zion hasierako ritmoari; eta ba dirudi, honez gero ikastoletarako testu liburuetan espezializatzaera doala. Hau ere oso beharrezkoa da, eta guztion xaloak merezi ditu.

Lur da, beraz, hasierako editorial guztietatik sendoenik eta zintzoenik dirauena. **Jakin**-ek ireki zuen euskal liburuen suskripzio bidea; eta bidezkoa da hori aitortzea, geroago, ekonomi eta lege oztupoengatik euskal liburuen merkatu sortu berri horri eutsi* ezinik ibili arren.

Ondoren **Lur** eta **Irakur Sail** hasi ziren, propaganda ugari baten bidez, euskal liburuen merkatua zabaltzen eta hedatzen,* eta guztion oinarrian, ohi ez bezalako garrantzi batez, Alfabetatze Kanpaina.

Uzta* nahiko hazirik zegoenean, beste hirugarren editorial bat agertu zen azkenean: **Etor**. Egia esan, harri-garria zen, jesuitak hain beranduarde itxaroten egotea. Barneko problemen eragozpenez ala merkatuaren arloa* hobeki jorratua eta landua ikusi arte itxaron* duten ez dakigu.

Egia esan, —eta batere faltsukeriarik gabe esan dezaket berau— **Etor**-en agertze hau begi onez ikusi nuen, honela, kompetentziaren bidez, editorial guztiek are* ardura* eta arta* handiago jarri beharko zuketelako, bai liburuen presentazioan, bai mamian eta bai prezioan ere.

Editorial gazteen karakteristika nagusia —oraingo gaiezkoak izateaz gainera— den denak euskara batuan jarrita egotea zen, edo eta horretara jotzea. Honetan, bai **Jakin**-ek, bai **Lur**-ek eta bai **Irakur Sail**-ek lan on bat egin dutenik ezin uka; literatur euskara finkatzen ahalegintzean, batasunari ohi ez bezalako bultzada eman baitiote.

Etor-ekin, ordea,* gauza kurioso bat gertatu zen. Argitara eman zuen' lehen liburua («Jainkoaren billa») ez zegoen beste editorialen bidean, ez gaiari dagokionez —ez baiteritzoguz mistikari oso gai aproposa editorial gazte batetarako— ez eta euskararen aldetik ere, Orixeren euskara batua ez delako.

Baina bigarrenarekin («Marxen marxismoa»), Gotzon Garatek euskara baturako borondatea nabari* erakusten zuen. Hirugarrena, Patxi Altuna jaunarena, euskaraz eta erdaraz atera zen, aditzari buruz, bai, eta Mitxelena jaunak partzialki ikusirik —horrekin, BAINA, Mitxelenak ontzat hartua zela esan nahi gaberik—. (Aditzaren problemaz, hain zuzen, ba dirudi, Altuna jaunak gauzak erdizka esateko joeratxo duela, bere opilari bero ematen ez dion ikatza aipa gabe utziaz). Liburu hori, gipuzkeraren oinarri ganean bazegoen ere, baturako bidean zegoela osotoro onar* daiteke.

Hemendik aurrera, Gurutz Ansolaren eta Lertxundi-ren liburu interesgarriak alde batera utzirik, ez dira inondikan ere euskara batuz eginak. Are* harrigarriagoa dateke,* «Seksu ezibidea» (sic) izenaz atera berri den liburua. Sexual hezibidea* argitzen dituzten irudiak penagarriri jarri dira, hain egoki eta inondik ere batu ez den euskara baten ondoan.

Bestetik ere, deskontrol handia nabari* da ortografian, eta hitzen literatur formetan anarkia oso bat (**gorbutz, eudi...**), **Etor**-en liburuetan. Ohorezko salbuespena* «Euskal Herriaren Historia (I)» da, hain zuzen **Etor**-en ekipoak moldatu ez duen liburu bakarra.

Editorialezko anarkia eta jokabide ilun honen aurrean, neronek galdera bat egiten dut: ea zertarako sortu den **Etor**, euskal liburugintza eta batasunaren onerako ala gauzak —kriterio segur baten faltaz— nahasiago jartzeko? Zergatik editorialaren beraren oharra (liburuen atzeko partean) beti datoz batu gabeko euskara batez? Hau xeheriatxo bat dateke,* baina biziro sintomatikoa.

Nola kontsenti daiteke honez gero horrelako egoera kaotiko bat, izenez eta tituluz progresista izan nahi omen* duen editorial batetan? Zergatik ez doaz izana eta izena batera?

XABIER KINTANA

Compruebe personalmente que
BYASS 96
es tan importante como dicen...



GONZALEZ BYASS
JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

Bigarren pausoari jarraituz

(Bigarren partea)

D. Argitasunaren beharra

1. Sarri askotan, herriak ez gaitu ulertzen, geure erruz ilun idazten dugulako. Idazle onak, gaia berez ulergaitza izan arren, aparteko habilitatea izaten du, gauzak argiro azaltzeko.

2. Lehenengo eta behin, irakurleek ondo uler gaitzen, sakonki ezagutu behar dugu euskara eta haren sintasia, eta ez erabili inoiz, euskaldun jatorren bela-rriei min egin liezekeen esaeerarik.

3. Baina euskara ondo jakitea ez da nahikoa. Horrez gainera, argiro idatzi behar dugu. Gaur egun, zailtasuna eta iluntasuna dira euskal idazleen bekaturik haundiena. Horregatik, ahal dugun guztia egin behar dugu, geure burua irakurle arrunten mailara beharatzeko, errazki eta aseginaz konpreni gaitzaten eta gure idazlanetaz asper eta gogait ez daitezen.

4. Uler errazak izateko erregela berezirik ez dago. Habilitate hori nork berak lortu behar du. Hala ere, ona izango da, hemen orientazio batzuk ematea:

- ahal dela, erabil bitez sententzia edo esaldi laburrak.
- ez luza sententziak, klausula subordinatu askorekin.
- aditz nagusiak konplementu asko dituenean, eta euskal sintasiak premititzen duenean, ez bitez jar konplementu guztiak aditzaren aurrean.
- idazleak, gaia ondo ezagutzen ez duenean, ez beza gai horretaz idatz.
- aukera bitez, euskaldunentzat interesa duten mila gairen artean, zailegiak ez direnak.
- jar bitez komak, behar diren kasu guztietan.

E. Komak jartzeko erregela batzuk

Sententzia konposatueta, komenigarri da koma bat jartzea:

- edozein klausula nahiz fraseren atzean, hurrengo klausula nahiz frasearen konplementu nagusia ez direnean. (**Klausula** deitzen zaio, sententzia konposatu baten barruan, aditz finitiboa [jokatua] duen hitz multzoari. **Frase**, berriz, aditz infinitiboa duenari).
- klausula printzipalaren atzean, komaren ordean EZEN edo ZE (erdaraz QUE) partikula erabil litekeenean.
- edozein klausula, hitz nahiz hitz multzoren atzean, hurrengo klausula nahiz fraseko hitzekin nahasmendurik sor ez dadin, eta irakurleak, idazlearen esangura zehatza ulerturik, sententzia osoa korrektuki irakur ahal dezan.

Adibidez: **Alkate jaunak, bere asmoak aurrrera eramateko, ahal den laguntzarik haundiena behar duela ikusirik, dei bat egin dauku herritar guztioi, herriaren alde zerbait egiten lagun diezogun.**

Horregatik, alkatea hona datorrenean, esan egin behar zaio zalantzarik gabe, hemen bildu garenok, berak nahi duen guztia egiteko prest gaudela, denek jakin dezaten, herri honetan oraindik gizon zintzoak bizi direla, oso pobreak izan arren.

F. Hiketa-zuketa

1. Gure artean, batez ere Bizkaiko euskalkian, ez da erabiltzen leku askotan hitanoa. Eta beharbada, ez da inon entzuten zuketa deritzan berbeta modua. Horregatik, norberaren euskalkiko hitanoa ere zail egiten zaie

irakurle askori, eta zailago oraindik euskara batuko hiketa-zuketa.

2. Hau kontuan harturik, ez da komeni une honetan, hiketa-zuketazko artikulu luzerik idaztea. Irakurleek berbeta modu hori geldi geldika ikas dezaten, nahikoa litzateke, hiketa-zuketazko esaldiak nahiz artikulu laburrak noizean behin argitaratzea.

G. Beste hizkuntzak

1. Idazle batzuk, batere beldur gabe, irakurlerik gehienek ezagutzen ez dituzten hizkuntzetako esaldiak sartzen ditute beren idazlanetan.

2. Hori inoiz egitekotan, jar bedi alboan euskarazko itzulpena.

H. Artikulu luzeak

1. Artikuluak luzeak direnean, irakurlea aspertu egiten da, edo irakurtzen ere ez da hasten, nahiz eta aurrean duen idazlana oso interesantea izan.

- Horregatik, artikuluak
 - izan bitez gehienetan laburrak.
 - luzeak direnean, ez dezatela inoiz orrialde oso bat pasa.
 - laburrak ez direnean, jar bitez beti subtutuluak.
 - izan bitez beti makinaz eta lerro biko tartez idatziak.

I. Inprimeriako letren neurria

Idazlan guztiak letra handiz inprimatuko dira, haien irakurtzea erosoago eta atsegingarriago gerta dadin.

ZUZENDARITZA

hijos de j. bilbao goyoaga, s. a. - deusto-bilbao

Ribera de Deusto, 1

Apartado 1300

Maisuaren orkatila

(Bigarren partea)

Hirugarren pausoa

Biharamunean, arratsaldean, ba goaz mendira. Udaletxeke,* Ziriako, basozaina dugu gidari. Alboan, hizkuntzalari biak eta hiru ikasle. Hirurok maisuen atzetik goaz, maldagora.* Bata fisikari. Besteak hizkuntza sailekoak. Aurrean, makinek ebakitako buztinbide zabala. Ezker-eskuin, pinu eta zaborra ugari. Isaban, pago sastrakari* diritzate zaborra. Nonnahi, goroldio,* ezpela,* intsusa,* urritza* eta hagina:* baso usain ukigabea.* Isaba eta Ezka behean gelditu dira. Mendi hegalkak, egutera* nahiz laihotz,* zabalduz doaz. Batetik bestera, izai* tantaiak nabari dira, berde ilunez jantziak; eta, gure inguruan, arratsaldeko eguzkiaren urretan jaikiz doa hilobitik, ezpatadantza bat bailitzen, nafar erregeen harrizko koroa: Ezkaurre, Lakora, Lakartxela, Xamantxoia...

Fisikariak, ihiztari* izanik, basurde bidea darakuskigu. Baina hizkuntzalariak ez dira ihiztatzera* etorri. Luma eta papera eskuan, pauso bakoitzeko, galdera bat zuzentzen diote basozainari: «Nola deritzazu gauza honi, horri eta hari?» Fisikako ikasle argiak, txantxetan, zorrakera deritza hainbat galdera usteli. Zertarako dira, egun* bizi ditugun problema sakonetarako? Filosofia bai, ongi dago filosofia eta hizkuntza. Baina toponimia? Zertarako dugu toponimia? Zertarako ardura* izan toponimiaz, hilik diren herrien izenez?

Coromines-ek ez du nahi fisikari landuaren erantzunik. Katalan jakintsuak herrigizon eskolagabearen erantzuna nahi du, eta honen mihinetik zientzia eta zibilizazioak ukigabeko* hitza jaso. Herri arruntaren* hitza. **In situ.**

Eguzkia beheraka doa. Nire argazki tresnak 60 diafragma seinalatzen du. Berruetako kaskoan gaude. Bidean artzain mutil bat batu zaiku zakurrarekin. Eskuan transistorea. Ogia eta latak sardina eskaintzen dauku zahato* ardoarekin. Arratsa heldu da. Isabatik urrunegi.

Laugarren pausoa

Bihurtu gara herrirantz. Ekin diogu maldabeherari. Goreneko aldapa xokoetan, nabari dira oraindik, gaur belardi bilakaturik,* urte gutti barruko larrainak.* Ba goaz beheraka. Gaudu dugu gainean. Jaitsi* gara Belabartzeko errekarā. Hemen dena da baso, dena harri, dena sasi, dena ilun, dena isil. Berandu da. Nekaturik gaude. Adinean* aurrera doazen gizonentzat, katedra gailentan, aulki bigunetan esertzeko jaun irakasle direnentzat hauk* ez dira lekuak, ez orduak, ez ibilerak. Hori bai: herri xehearen, nekazari eta artzainen bideak hauk dira!

Herriratzeko, kilometro bi falta zaiku. Biderik laburrena Parategarriko urbidea dugu. Urbidean, oin bat eta erdi zabal den ertzaren* gainean, gaueko bederatzia eta erdietan, ximist argitan eta euripean gizatalde bat doa Isabara. Artzainak? Nekazariak? Kontrabandistak? Gerrieroak? Lapurrak? Edonor izan gintezkeen. Sekula ez naiz hain egoera xelebrea aurkitu. Luze eta hertsia* zen urbidearen ertza. Bat batean, bildur nintzena gertatu zen: Coromines jauna eskuinetara erori* zen, kanaleko uretara. Zorionez izua haundiagoa izan zen mina baino. Besteak, ordea,* ba zuen minik: Koldo ezkerretara amildu* zitzaikun. Ezkerreko harkaitzarte zulora. Gauaren errai ilunetatik, ai ene! triste bat entzun genuen. Hura ezin

ikus. Hain zegoen ilun, hain beltz. Une larria guztiontzat. Jaitsi ginen, begiratu genion, jaso genuen. Bizi zen.

Euri eta izerdi hotzez bustia, jartzen dugu etzanik bidearen gainean. Gidaria eta biok ba goaz herrira. Linterna bi eta angaila* eskutan, han gatoz ostera,* hiru mutil bulartsurekin. Hauetatik bat fisikaria, gu baino lehenago etxeratua. Koldok, egonaren egonez, hotzikara du gorputzaren muinean. «Whisky! Whiskyrik ekarri dautazue?» Koldok ba daki, nik ezagun dudala bere gutzia.* Pena dut. «Ez, Koldo. Ez zait bururatu ere!» Haren orde, hartzen du zigarro bat ezpainetan, eta, lau gazteren eskutan, angailaren gainean doa gizona Isaban barrena, gau tamalgarri* eta itxuragabe hartan. Oraindik halako ibilaldi barregarririk! «Eskerrik asko guztioi. Ez kezka nitaz. Ondo nago».

Baina laster du ohearen alboan Isabako sendagilea. Gauza nabarmena da. Koldok orkatila* du hautsia.

Hemen bukatu zen Erronkariko ibarrari buruzko lana: ekinaldia eta ibilia.

Bostgarren pausoa

Hurrengo goizean, halabeharrak bortxaturik, etxerantz abiatu behar izan genuen, ezer askorik egin gabe, Euskal Herriko mugak dauden daudenean utzirik. Bidean honela galdetu nion Coromines jakintsuari: «Nola aurkitu duzu Erronkariko egungo* gizonaren mintzaera?» Eta hark erantzun: «Pobre, guztiz pobre!»

Oraindano, futbolistek hautsi ohi zuten orkatila. Gaurtik, futbolistak bezala inor adoratu gabe, herri behartsuaren bide neketsu eta ilunetan orkatila puskatu duen eta puska dezakeen maisu guztiri, errespetuz, xapela erantzten diot. Neure xapel... beltza.

Seigarren pausoa

Maisua zango igeltsatuaz dabil. Ibili dabil.

IÑAKI USABIAGA

dauku, **deusku**, digu
dautazue, **deustazue**, didazue
diot, **deutsat**
diote, **deutsoe**
genion, **geuntsan**

gintezkeen, **geintezkeen**
nion, **neutsan**
zaiku, **jaku**, zaigu
zait, **jat**
zitzaikun, **jakun**



ELAIS ALAI
YURRE

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6. tati 11. ra
Astegunez: 7. tati 11. ra.

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA

Neure lantokitik

Goizeko zortzirak dira. Eguna sortu berria da, hazileko* goiz euritsu eta ilun honetan. Fabrikarako bidean, neure autoari argiak biztu dizkiot.

Nerbion ibaiari begira, fabrikak zerrendan daude, bata bestearen alboan. Langileak, gizonak eta andreak, multzoka sartzen dira, Ibarrolaren pinturretan ikusten diren bezala, gris, amorfo, triste, gaurko eguraldiarekin osorik ados.*

BURTZEÑA

Leihoratzen naiz neure langelan. Ordinadoreak lan egiten duen bitartean, oharkabean* leihoratzen naiz, baina berehala barruratzen naiz berriro. Ez dago zer ikusirik, kanpoko ikuskizun hori mila bider ikusia dut eta: aurrean, beste fabrika baten orma* luzeak. Behean, estrata* baketsu bat. Albo batean, bidearen eta ibaiaren zati txiki bat. Urrunago, Burtzeñarako bidean, beti bezala, auto eta kamioi erreskada* ikaragarria.

Gaurko egunkarian irakurria dut, milioi bat pezeta balio duela Burtzeñan egunero alferrik gastatzen den gasolinak.

ZAZPI IKURRIN

Orain gogoratzen naiz, nola Aiumentuenak, Printzea etorri zenean, farol bakoitzean zazpi bandera ipini zituela, ni bizi naizen kalean.

ITXAROPENA

Hamabiak eta erdiak dira. Atea zabaltzen da eta Montserrat sartzen. Ez da luzea, ez tipiegia. Galanta da. Egunero bezala, «egun on» esanez agurtzen nau.

Begiratzen diot: zapata beltz altuak, minigona, ile luzea.

Ni nagoen bulegoko* tresna baten aurrean jartzen da, eta lanean hasi. Bitartean, berba egiten du.

Goizeko zazpiretan ateratzen da Barakaldotik, eta 8retan hasten da lanean fabrikari, behargin* bezala. Hamabietan, etxetik ekarritako bazkaria jaten du; eta hamabiak eta erdietan nire gelara dator, lehen aipatu dudan bulego tresnaren erabilketa ikastera. Gero, ordu bietan, berriro lanera, behera, fabrikara, seirak arte; eta zazpiretan heltzen da etxera. Beraz, goizeko zazpiretarik arratsaldeko zazpiretara, hamabi ordu fabrikari eskainiak.

Baina Montserratek itxaropena du, eta 16 urte. Horregatik etortzen da nire bulegora, gehiago ikastera. Ikasten duenean, beharbada, haren lan orduak gutturu eta erraztu egingo dira, fabrikako lana eta bulegokoa ez baitira berdinak.

Fabrikako bat ezagutu dut. Bere problemak kontatu dauzkit. Nortzuk dira beste 600 langileak? Zeintzuk haien problemak?

Alboan dudan neskatalak itxaropena du. Ba ote dute besteek esperantzarik?

KOBRAKETAN

Eskaileretan gizon batek galdetzen daut:

—Non dago kobratzeko tokia?

—Hor goian.

Nekez igotzen da. 70 urte ematen ditu. Urez hondatuta dago.

Igotzen den bitartean, karpeta txiki batetik, errezi-bo bat atera nahian dabil.

Jubilatu bat da antza.* Izan ere, pentsioak txikiak dira, eta lagungarriren bat bilatu behar.

IKASTOLAN

Atzo esan zeutaten, nire semeen ikastolan lapitzak kutxa komun batean daudela, eta, lanerako, ikasleek edozein hartzen dutela.

Nire eskola denboran, bakoitzak genuen geurea, eta sakel haizto* batekin geure izen-abizenen lehen letrak ezartzen genizkion, gure propietatea nabarmen ager zedin (lurrei mugarriak ipintzen zaizkien legez*).

BELTZAK

Bostehun bat arabiar (Marroko eta Algeriakoak batez ere) ei* dabilta lanean Bizkaian. Gure fabrikari ere ba dira. Arabez mintzatzen dira.

Norbaiti entzun diot, euskara burgesen hizkuntza dela, eta gaztelania proletarioena. Baina, orain, ez dela horrela pentsatzen dut, zeren* beltz hoiak lan gogorrenak egiten baitituzte, eta, hala ere, arabez mintzatu. Den dela, nire nagusi guztiak erdaldunak* dira, baina proletario direnik ezin nezake esan.

IGANDEAREN ZAIN

Bihar igandea!

Zergatik gaude guztiok igandearen* zain?

Hauxe esan dautate hainbeste lagunek.

Zergatik igandearen zain? Monotoniatik irteagatik?* Geure orduen jabe izateagatik?

Eta asteak pasatzen dira, eta hilabeteak, eta urteak. Gure buruko ileak zuritzen hasten dira, gure seme-alabak gorantz doaz. Esperantza batek bizi arazten gaitu. Beti gaude zerbaiten zain. Gabonetako loteria? Datorren hilabeteko jorنال igoera?

Eta gure bizitza deseginez doa, kandela biztu bat urtzen den bezala.

Eta ez gara ezertaz konturatzen, kontsumoko gizar-teak gure pentsatzeko ahalmena bera ere kontsumitu daukulako.

XABIER GEREÑO

dauku, **deusku**, digu
daut, **deust**, dit
dautate, **deuste**, didate
dauzkit, **deustaz**, dizkit
diot, **deusat**

dizkiot, **deutsadaz**, diozkat
nezake, **neike**
zaizkie, **jakez**
zeutaten, **eusten**, zidaten

"ZORIONAK"

emateko
aurtengo Gabonetan
erosi
CEL-LO etiketak,
neurri askotakoak
EUSKARAZ nahiz
Erdarazkoak.



JARDINES, 10 - TEL. 24 60 31
BILBO - 5

Euskal kultura eta irraticia

Loiola eta Donostiako herri irratiak berri batekin datozkigu. Hazilaren* 15ean, saio berri batekin hasi dira. Saioaren izena: Euskal Kulturaren Bideetatik. Ordu erdikoa da, eta arratsaldeko zazpiretan hasten da. Saio berri hau, egunero, astelehenetik ostiralera* bitartean egiten da.

Entzuleek osorik egiten duten saioa da. Sariekin eta herri musikarekin osatzen da ordu erdia.

Honako lau parte hauk* ditu:

1. Sarrera gisa,* galdera bat egingo da, Euskal Herriaren kultura gai dela. Galdera honi erantzungo diotenak, ikastolako umeak izango dira, 6 urtetik 10 urtera bitarteko umeak. Baina beren senide eta andreñoen laguntza izan dezakete, erantzuteko.
2. Bigarren partean ere ikastolako umeek idatziko dute. Gai bat emango zaie, eta umeek idazlantxo bat egingo dute eta irratiara bidali.
3. Hirugarren partea bi zati ditu: Ikastolako umeek eta Lizeoko edo 11 urtetik 16 urtera bitarteko gazteek idatziko baitute. Idatzi behar dutena, ipuin, ate-

raldi edo zenbait* gertaera xeble izango da. Horregatik, idazten dutenek beren adina* adierazi behar dute, 6tik 10era bitartekoa ala 11tik 16ra bitartekoa den jakin dezagun.

4. Laugarren partea ere bi zati ditu: 11 urtetik 16ra bitartekoez eta 16 urtetik gorakoek idatziko baitute. Gai bat emango da, eta idazten duenak bere adina adieraziko du, 11tik 16ra bitartekoa ala 16tik gorakoa den jakin dezagun.

Parte eta zatiei dagokienez, sei sari jarriko dira. Ahaleginak egiten ari gara, sari ederrak izan daitezten.

Idazlanen neurria: Folio bat alde batetik, makinaz idazten bada; eta bi aldetatik folio bat, eskuz idazten bada. Honekin esan nahi dugu, folio bat baino gehiago ez dagoela idazterik; guttiago bai noski.*

Euskaldun jator guztioi gure deia: Har ezazue parte saio honetan, denon onerako izago delakoan baikaude.

LOIOLA ETA DONOSTIAKO

HERRI IRRATIAK

G A B O N E T A R A K O



CINSA: Av. del Ejercito, 18 - BILBO - 14

Euskara "mantxatua" behar dogu

Milaka gazte hasiak dira, aurtengo ikastaro honetan ere, euskara ikasten Euskal Herri osoan zehar. Edonork du honen berri. Irakasle falta izugarria ikusten da non-nahi, nahiz eta denbora laburrean hauk* asko ugaritu diren.

Patxi Altunaren metodoa («Euskara Hire Laguna») barra barra saltzen da. Pozgarri da guzti hau. Euskararen ikaste bakarrak ere indar iraultzaile* bat ba duela uste dut, gaurko gure Herriaren egoera honetan. Galdu ondoren berriz ikastea hain zail den hizkuntzaren erre-kuperatze lanak frutu onak ekarriko dituela, dudarik ez dago.

Hala ere, argi eta garbi esan nahi nuke, nire eritiziz, euskara irakastea ez dela aski.* Konkretuago: Euskara irakasten diharduenak, bere irakaskintzan euskara euskara den aldetik bakarrik ez duela hartu behar kontutan. Astakeria bat eta denbora galtze negargarri bat egiten ari* gara, euskalduntzarekin batera pertsonagintza egiten ere ahalegintzen ez bagara.

Ba dakit, zientzia bakoitzak bere autonomia esijitzen duela, bere teknikak ba dituela, espontaneismoan ez garela erori* behar, sail bakoitzean jende espezializatua behar dugula, eta abar, eta abar.

Horretaz ez dut dudarik egiten. Hori dela eta, oso ongi ikusten dut, exenpluz, Euskaltzaindiak emanikako karnet baten jabe izan beharra, zentro ofizialetan euskara irakatsi ahal izateko. Euskara sailean egungo* anarkiari mugaren bat ipini beharra nornahik ikus dezake.

Baina besterik da, euskara aseptiko, apolitiko eta forma hautsezko bat irakatsi nahi izatea. Mihingaina* jazteaz konforme dira batzuk.* Pertsona (ez gorputza) biluzik uzteak ez ditu kezkatzen. Euskararen konzepzio mekanizista eta magiko batek eraginik edo, euskarakeria batetan, hizkuntzaren absolutizazio merke batetan erortzen dira.

Mihingaina hizkuntza berri batez aberastea, mihingaina aberastea bakarrik ez dela ba dakit, batipat* hizkuntza hori norberarena denean. Hizkera, pertsonaren estrukturari berari dagokion zerbait da. Baina uste dut, gizon bat pertsona libre eta erresponsible izatera eramateko hizkuntza irakasteaz batera, beste zerbait ere egin behar dela. Euskara hutsa eta formalez, mentalitate zahar eta eskaseko euskaldunak mentalitate zahar eta eskasez jarraituko du, burges mentalitatea duenak burges mentalitatez, zapaltzaileak zapaltzaile.

Gabriel Arestik zera dio, «Kaniko eta Belxitina» liburuaren atariko bere ele* saminetan, 13. orrialdean: «Batare dudarik gabe, bai, zuzen zegoen, orduan (Urki-xoren denboran) oraindik euskara mantxarrik gabeko hizkuntza sakratua baitzen, ezergatik zikindu behar ez zena. Seguru asko gaur egunean ere, berdin gertatuko litzateke, eta liburu honen argitaratzearekin mundu guztia kontentatuko ez dela ustean gaude».

Arestik hor egoki salatzen duen euskara garbi eta sakratuaren mantxa eta zikina, sexo eta sensualitate mailakoa da. Gaur egun superatu samarra ikusten dut, gehienen artean behintzat, euskara sakratua lizunkeriaz mantxatzeko beldur hori.

Uste dut, orain beste mantxa batzuei zaiela beldur gehiago, gizarte klase baten aldetik behintzat. Kontradizioz eta zapalketaz beteriko Herri honetan, euskara sakratua mantxarrik gabeko neutralitatearen erreinuan erein nahi da. Aingerukerja eta ihesbidea ez ote zaió deitzen horri?

Orain hain modan dagoen (hitzez behintzat) Paulo Freire pedagogoak Brasilen alfabetatze lanean erabili zuten printzipio pedagogikoak eta metodoak gure kasuan ere aplikatu behar direlakoan nago, ahal den neurrian eta taktikaz. «L'éducation: pratique de la liberté» liburuan, 108. orrialdean, honela dio:

«Egiaz, egun osoa lanpean iragan* eta gero, edo eta egun osoa **lanik gabe** pasatu eta gero, oso pazientzia handia behar da, modu honetako fraseak eraman ahal izateko: 'Kepak burua ikusten du, burua, animalia berrua', edo eta, inoiz saloirik ikusi ez duen eta inoiz xaboirik erabili ez duen jendeari saloiaz eta xaboiak hitz egiten entzuteko. Guk buruan dugun alfabetatze lana ekintza kreatzaile bat da berez, beste ekintza kreatzaile batzuk erakartzeko kapaz izango dena. Gizona, gauza hil baten pasibotasunetik aterata, reibindikazioaren, asmatetaren eta bilaketaren karakteristikak diren ezinegonaz eta bizitasunez jantziko duen alfabetatze lana».

Paulo Freirek honela definitzen du gizonaren zentzu kritikoa: «Gauzak eta gertakariak beren konkretasunean eta beren erlazio logiko eta zirkunstantzialetan ikustea». Eta zentzu kritiko hori da alfabetatzeak lortu behar duena.

1964.ean Brasilen diktadura finkatu aurreko urteetan egin zuen Freirek alfabetatze lan hori. Zazpi urte iragan dira ordutik. Eta gu hemen gabiltza oraindik, inori minik emango ez dion eta ikaslearen burua aldatuko ez duen esaldi neutral (neutral?), «unibertsal» eta politex euskara irakasten.

Eta «euskara hutsa» irakatsi nahi ez dutenak, euskara mantxatua baizik, «ikonoklastak» omen dira, ZERUKO ARGIAN irakurri dugunez. Baina nor ikonoklastago, pertsona konkretuaren situazioa baztertuz, gizona hizkuntza bat depositatzeko almazen bihurtzen duena baino?

Nire eritiziz, pertsonaz eta herriaz ikusmolde atomista bat dugulako gaude egoera honetan. Baina hau beste artikulu baterako gaia litzateke.

EUSEBIO OSA

dezake, **daike**
gaude, **gagoz**

zaie, **jake**
zalo, **jako**

Iñaki Allika hil da

Iñaki Allika Zalakain abertzale gartsua hil da, hazilaren* 15ean, Lapurdiko Donibanen, 56 urte zitularik. Iñaki jauna, «Txapel» izenordez ezagutuagoa, Bilbotarra zan, eta Berane Ugalde bere emazteagandik seme bi, Iñaki eta Xabier, izan zituan. Bizienak* jota hil izan da, eta hileta elizkizunak Lapurdiko Zokoan egin izan jakoz. Goian bego!



I. HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartxo bategaz agertzen diren berbak

ADIN, edade.
 ADOS, akort, konforme.
 AGIAN, beharbada, nonbait, **seguramente**.
 AHULDU, makaldu.
 AHULEZIA, makaltasun.
 AINITZ, asko.
 AITZITIK, **al contrario**.
 ALDERANTZIZ, **al revés**.
 ALEGIA, **a saber, esto es, es decir**.
 ALOR, arlo, sail, eremu.
 AMILDU, **precipitarse**.
 ANGAILA, **parihuelas**, civière.
 ANTZA, nonbait, agian, aurki, urrean, beharbada.
 ARAKATU, aztertu, ikertu.
 ARAUERA, arabera, **según, conforme**.
 ARAZO, **problema, quehacer**.
 ARDIETSI, erdietsi, lortu.
 ARDURA, axola, arta.
 ARDURATU, axolatu, artatu.
 ARE, oraindik.
 ARI IZAN, aritu, jardun.
 ARITU, ari izan, jardun.
 ARLO, alor.
 ARRUNT, **ordinario, corriente; completamente**.
 ARTA, axola, ardura.
 ASKI, nahiko.
 AT, kanpo, landa, **fuera**.
 ATUNZALE, **barco atunero**.
 AURREZKI, **ahorro**, épargne.
 AUZAPEZ, alkate.
 AZKAR, sendo, indartsu.
 BALDINTZA, **condición**.
 BATIK BAT, batez ere, bereziki.
 BATIPAT, batik bat, batez ere, bereziki.
 BATZUK, zenbait. (**Batzuek** aktibo, **batzuk** pasibo).
 BEHARGIN, langile.
 BERARIZKO, **especial, característico**.
 BERAZ, **por consiguiente**.
 BEREZIKI, batez ere.
 BERRIKI, berrikitan, oraintsu.
 BESTE, haina, bezainbat.
 BEZERO, **cliente**.
 BIDE, nonbait, beharbada.
 BILAKATU, bihurtu.
 BILDU, batu.
 BIZIEN, **cáncer**.
 BORTITZ, sendo, indartsu.
 BORTIZKI(sendoki).
 BOZKA, **elección**.
 BULEGO, **oficina, bureau**.
 DAKIKEGU, dakigu nonbait.
 DATEKE, da nonbait.
 DATZA, **yace, consiste**. (Etzan **aditzaren forma**).
 DOHAN, **gratis**.
 EGITEZ GERO, egitekotan.
 EGUN, gaur.
 EGUTERA, **sitio soleado**, lieu ensoleillé.
 EI, omen.
 ELE, hitz, berba.
 ELERTI, **arte literario**.
 EMEKI, geldiro.
 ENTSEIU, **ensayo**.
 ERABAT, guztiz, **completamente**.
 ERAKUNDE, **institución, entidad**.

ERIZPIDE, **criterio**.
 ERORI, jausi.
 ERRESKADA, **fila**.
 ERRU, hobea.
 ERTZ, hegi.
 ESANGURA, esannahi.
 ESKUALDE, **comarca, región**.
 ESNATU, itzarri, itzartu.
 ESTRATA, hesiz edo paretez inguraturiko bide.
 ETSI, **resignarse, perder la esperanza, cejar**.
 EURREZ, erruz, **abundantemente**. (Hobe litzateke, euskara batuan, **erruz** hitzaren ordez Bizkaiko **eurrez** erabiltzea).
 EUTSI, **asir, saisir**.
 EZKUTATU, ostendu, gorde, **catcher**.
 EZPEL, **boj, buis**.
 GABE, **en vez**, au lieu.
 GALDATU, eskatu.
 GISA, modu.
 GORRI, **banco de peces**.
 GOROLDIO, **musgo**, mousse.
 GRINATU, kezkatu.
 GURARI, desira, nahi.
 GUTIZIA, gurari, desira.
 HAGIN, **tejo, if**.
 HAGINZORROTZ, atun klase bat, **listado** erdaraz.
 HAINAKO, besteko, bezainbateko.
 HAIZTO, **cuchillo**, couteau.
 HALABER, **igualmente**, así mismo.
 HARO, **época, edad**.
 HARPIDEDUN, **suscriptor**, abonné.
 HASTAPEN, hasiera.
 HATZAMAR, **dedo**, doigt.
 HAUK, honeek. (**Hauk** aktibo, **hauk** pasibo).
 HAUTATU, aukeratu, **elegir**.
 HAZIL, **noviembre**.
 HEDATU, zabaldu, **extender**.
 HEGALUZE, **bonito**, germon.
 HERTSI, hestu.
 HETSI, hertsia, hitxi.
 HEZIBIDE, **educación**.
 HEZIKETA, **educación**.
 HILDO, **surco, sillon**.
 HIRI, huri, **ciudad**.
 HIRIGINTZA, **planificación urbana**.
 HITS, triste.
 HOBETSI, **considerar, mejor, preferir**.
 HOIK, horreek. (**Hoiek** aktibo, **hoik** pasibo).
 HOTS, **es decir, esto es, a saber**.
 HUELGA, greba.
 HURBIL, hur.
 IGANDE, domeka.
 IGOR, igorri, bidali (**sujuntiboetan**).
 IHIZTARI, **cazador, chasseur**.
 IHIZTATU, **cazar, chasser**.
 INTSUSA, **saucó, sureau**.
 IRAGAN, igaro, pasatu.
 IRAIL, **septiembre**.
 IRAULTZAILE, **revolucionario**.
 IRITXI, heldu.
 IRRIKA, **deseo ardiente**.
 IRTEN, urten, atera, ateratu, jalgi.
 IRTENBIDE, urtenbide, jalgibide.
 ITAUN, galde, galdera, **pregunta**.
 ITXARON, igurikatu.
 IZAI, **abeto, sapin**.

JAITSI, **bajar, descender**.
 JASAN, **sufrir, soportar, experimentar**.
 JAUSI, erori.
 JAZO, gertatu.
 KALONJE, **canónigo**.
 KAZETALARI, **periodista**.
 KOAITA, **cuita, ansiedad**.
 KOKATU, **colocar, situar**.
 LAIHOTZ, **sitio sombrío**, lieu sombre.
 LARRAIN, **era**, aire.
 LEBAZALE, legatz zale, **barco merlucero**.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LEHER ARAZI, **hacer explotar**.
 LEHIAKETA, **competición, concurso**.
 LEKUKO, testigu.
 LORTU, ardietsi, erdietsi.
 MALDAGORA, aldazgora.
 MENDE, **siglo**.
 MIHINGAIN, mihin, mihi.
 NABARI, **evidente, patente**.
 NABARITU, **percibir, notar**.
 OHARKABEAN, konturatu gabe.
 OHARTU, konturatu.
 OIHARTZUN, **eco**.
 OLERKI, **poesía**.
 OMEN, ei.
 ONAR, onartu (**potentzialetan**).
 ORDEA, berriz, aldiz, **en cambio**.
 ORKATILA, xongatila, **tobillo**, cheville du pied.
 ORMA, paret.
 ORO, guzti.
 OSTERA, berriz, aldiz, ordea.
 OSTIRALE, ostiral, bariku.
 PERTSONAIA, **personaje**.
 SAIATU, entseiatu, bermatu.
 SALBUESPEN, **excepción**.
 SANTANDERE, **Santander**. (Bermeon **Sanandere** esaten da).
 SARRI, maiz.
 SASTRAKA, **matorral**, broussaille.
 SEN, instinto, sentido. (Alemanaz **Sinne**).
 SITS, **polilla**, teigne.
 SO EGIN, behatu, begiratu.
 SOIL, **mero, simple**.
 SOILIK, **solamente, meramente**.
 TAMALGARRI, lastimagarri.
 TIPLE, **soprano**.
 TOKITAN, lekutan.
 TXIMINO, **mono**, singe.
 UDALETXE, herriko etxe.
 UHARTE, **isla**.
 UKAN, izan (**aktibo**).
 UKIGABE, ikutu gabe.
 UNKIGARRI, **conmoverdor**.
 URRATS, pauso.
 URRITZ, **avellano**, coudrier.
 UZTA, **mies, moisson**.
 UZTAIL, **julio**.
 XAHUTU, gastatu, eralgi.
 XARMANGARRI, zoragarri.
 ZAHATO, zahagito, **bota**, petite outre.
 ZELATAN, **al acecho**, à l'affût.
 ZENBAIT, batzuk.
 ZEREN, ze, **pues**.
 ZUHAITZ, arbola.
 ZUR, egur.

II. LEXIKO BATUA

XABIER KINTANAK

Hitz hauk sustrai berekoak dira, baina ez dira guztiz berdin esaten toki guztietan. Ikas ezazu era batua.

EUSKARA BATUA

BERDIN
 ELUR
 BELAR
 ILAR
 ZILAR

ERA DIALEKTALAK

BARDIN
 EDUR, ERUR.
 BEDAR, BERAR.
 IDAR, IRAR.
 ZIDAR, ZIRAR

“Kaniko eta Belxitina”

Argia ikusi berri du liburu berri batek. Liburu berria; mamia, zaharra. LUR editorialak irakurleei liburu on bat eskaini nahi zan die. Baina gauza bat da nahi izatea, eta beste bat, benetan lortzea.*

Nire eritziz, liburu on bat izan zitekeen Jakes Oiherarte-ren «Kaniko eta Belxitina». Ba dirudi, euskaldunok geure aintzinako literatura ezagutzeko gose garela. Jende gazteak batez ere, gure literatura ezagutzeko irrika* sentitzen du. Literatura hori urria eta zenbait kasutan oso mugatua izan arren, jendeak, herriak, geure geure dugun literatura hori zer eta zelakoa* zen jakin nahi du.

Bestalde, herritar gehienontzat aski* misterioso gertatzen da literatura horren zenbait* alderdi. Hauxe da Zuberoko pastoralekin gertatzen dena. Euskalddun gehienok ez dugu behar bezala ezagutzen sail hori. Gure ezagutza ezaren errua,* beharbada, euskaldun jakintsu batzuek izango dute. Hitzaurre egileak, esaterako, Urkixoren betebeharrak ez du leku onean uzten. Guretzat ulergarri da zenbait alditako euskaldunen erizpidea,* batez ere morala eta literaturari buruz beren epaia eman behar izan zutenean. Beren garaiko seme baitziren. Baina ulergarri izateak ez du esan nahi, inola ere, erizpide zuzena zenik. Ez du esan nahi, justifika daitekeenik besterik gabe.

Gaur giroa aldatu bide* da, bestelakotu. Zenbait gaitara ohituago gaude. Horregatik, ez dut uste, jendea hainbeste eskandalizatuko denik, «Kaniko eta Belxitina»-ren «berde kutsuaren» aurrean. Ez eta kalonje* teokratik ere. Oraindik gehiago esango nuke: inor ez dela harrituko liburu horren gordinkeriaz. Zergatik? Ia inork ez duelako irakurriko. Beharbada, filologoren batek, gauza bitxitzat harturik, bere gozamenerako gai polita izango du. Baina herritar gehienek irakurri gabe utziko dute. Eta, irakurtzen badute ere, ez dute ezer askorik ulertuko.

Hitzaurreak dioenez, «pastoral honen argitarazioarekin LUR editorialeak beste zerbitzu bat errendatu nahi ukan* dio euskal Herri xehearen kultura propioari, ea nolabait kultura mezprextatu horrek, euskal edo pseudo-euskal oligarkiak eta burjesiak hain zapaldu horrek, bere gauzatze eta bururatze osoari bide bat aurkitzen dión» (azentu guztiak Aresti jaunak jarriak dira; ez dakit, hori nondik aterea duen, baina).

Hemen ere, tokitan* gelditu zaiku editorialaren nahia! Herri xeheak lehen bezain zapaldu eta kulturgabe jarraituko du; «Kaniko eta Belxitina» liburuaren argitaratzeak ez baitio ezer ematen, «oligarkiak eta burjesiak hain zapaldua» den herri horri. Herriak bere nortasuna aurrera eraman eta atera nahi du; baina **gutti lagun diezakeo, ulertzen ez duen liburu batek**.

Zen izan da, beraz, liburuaren argitaratzearen helburua? Ez zuten, nonbait, **sinbolo soil** bat eskaintzea nahi izango. Ondo daude sinboloak; baina sinbolo hutsekin ez goaz inora. Gainera, merezi ote du, liburuaren erosleak (LUR-en harpidedunak,* kasu honetan) gastatu duena gatzatzea, sinbolo batek besterik gabe argia ikusi dezan, horrela Aresti jaunaren edo beste edonoren kontzientziari pisu astun bat gainetik kenduz? Nik neuk ez

diot beste ezer ikusten liburu horri, Herri xeheak —eta hain xehea ez den Herriak— jasaten* duen opresioak berdin jarraituko baitu. Baina hor geldituko da liburutegiko bazter batetan, gero eta hauts gehiago duela gainean. **Hor egongo da lotan Herri zapalduaren errebeldiaren sinboloa.**

Baina irakurle xeheak, bere eguneko hogeitalau ordutan tartetxo bat nekez aurkitzen duenak, gure literaturaren sail berezi eta interesgarri bat zertxobait ezagutzeko asmoz, aipatzen ari garen liburu horretara joko balu, ez luke asko aterako. Burua nekatu, bai. Ulertu, gutti. Eta Zuberoko pastorala ezagutu, are* guttiago. Irakurleari besterik gabe ematen bazaio textua, irentsiz dezan, irentsi ezezik, ito ere egingo da. Adibidez, begira honako testu honi:

**Jaouna, ezkutuzu
jiten espiunatzera,
bena bai zerbait karitate
badukegunez jakitera. (34)**

Beharbada, estrofarik errazenetakoa aukeratu dut. Irakurleari ez baldin bazaio zenbait hitz eta aditz formen esannahia adierazten, alferrik da irakurketan hastea.

Beraz, zer esan liburu honen argitaratzearen aurrean? Hau bakarrik: Gauza, egin den bezala egitez* gero, hobe ez egitea. Ezer ez ateratzez gero, garestiegia da liburu horretan xahutzen* den dirua eta astia. Sarrera gisa,* pastoral jeneroari buruzko dato batzuk eman izan balira, eta textua ohartxo batzuen bidez argitu izan balitz, orduan oso liburu interesgarria litzateke. Nik ez dut esaten, Jon Etxaidek bere «Etxahunen bertsoak gipuzkeraz» deritzan liburuak prestatzen hartu zuen lan ikaragarri eta baliotsua inork egin dezan. Hobe, egingo balitz. Baina gauza bera gertatu zen Aresti jaunak berak «prestatu» zeukun «Euskal protestantismoa zer zen» liburuarekin. Dirudienez, liburuaren prestatzaileak ez du nahi izan lan serio bat egiterik. Eta, bere ideia pertsonalak hitzaurrean bota ondoren, horrekin konformatu da.

Liburu horren zain zegoenak guttien nahi zuena, seguru asko, sermoe bat zen. Baina hitzaurre horrek sermoe kutsua ere ba du, Euskal Herriko kalonje* teokrata guztiak aipatzen dituelarik. Irakurleak ez du sermoerik nahi, eta, beharbada, zenbait eratako sermoerik oraindik guttiago.

Lehen ere aski* ditugu entzunak. Liburu bategatik herriak dirua ordaintzen duenean, zerbait aurkitu nahi izaten du, eta zerbait hori guttitan izaten da sermoea. Gainera, elizetan ematen direnak dohan* ematen zaizkio entzuleari.

Hitz guttitan esanda, «Kaniko eta Belxitina» liburuak, LUR editorialak atera duen bezala, ezer guttirako balio du, gehienontzat behintzat.

HORMAETXE

dezan, **daian**
die, **deutse**
diezakeo, **deiskio**, dezaioke
dio, **deutso**
gaude, **gagoz**

zaiku, **jaku**, zaigu
zaio, **jako**
zaizkio, **jakoz**
zeukun, **euskun**, zigun